

GERTATUA

(Aurtengo indar-neurtzeetan saria irabazia)

GARAGARRILLA zan. Illargi garbi ederra, odoyen arrastorik gabeko zeru zabalian, Getariyako elizaren torre zar illuna, nola bere tellatuak argituaz, zillarrezkuak diruditela.

Illargiyaren inguruan izarrak: or iru, an bi, urrutiyago zazpi ta berago iru erregiak, danak dizdiatuaz alkarren leyan bezela.

Kontatzen dute, ill ziran aingeruchuak dirala, ikusten diran oyek, begira baleude bezela zerutik. ¿Egiya ote da?

Goizeko irurak izango ziran geyenaz ere, atera ziranian askotan bezela, bi arrantzale, mutill gaste senduak, bateliku koškor batian, terral belchak jo eta ederki aizetusaz ſebera chikiya chiribistatu gabe atzoko toletari, purruſtaran guztiz leun gain-beratuaz, jostaketan erromeri batera zijuazela zirudiyela.

Laister utzi zuten atzian, San Antongo mendi kopet illuna, Getariyen kontuan gau ta egun egoten dan zelatari tentia ta ernaya.


Etziran izango artian iru ordu itsasoan zirala, alchatu zuenian bat batetan chistuka, galerna beldurgarri bat, zurrubillatu ta asarre asiyaz gogorkiro, itsas leun geldiya ta añ sosegu ederrian arkitzen zana: azalduaz aldiyan, aldiyan, an urrutiya gorritua, chimista sutzuen argi bizira.

Arrantzale bat, gaztia izan arren nola zerbait izutiya zan eta arreta bizi nabaiturik aizien indarra, asi da beriala ta biyotzez erregutzen ze ruari. Beste gaztia mutill askatuba ta koajetsuagoa izanik, ematen zi yon animua, esperantza ta indarra, bere lagunari.

Bazetozen eche aldera, aiziak bapo bultzatuaz eta atzetik jo ta sartzen zan itsas kolpiak zatiturik, esan diyo izutiyak:

—Martin: *¿Nai dek promesa bat egíñ zayogun, gure Gurutze Santu Lezokuarí?*

—Bai, Benito, bai. *¿Zer promesa nai dek egitia?*



LEZO-KO GURUTZE DONEAREN ELIZA

Martiñ pachara ederrian atuna janaz, eta dezio zuen bezela. esan diyo:

—Martiñ: badakik promesa egíñta eman genduen itza egikaritut biar degula, kristau fedetsuen moduan.

—Nai dekanian, Benito, diyo Martiñek, chakolin trago on bat egíñaz eta ezpañak esku gañekiñ igortziyaz.

—Libratzen bagera galerna onen atzaparretatik, oñez gauden bezela, bere oñetara joatia.

—Nai dekan bezela, Benito; baña ikusten dek, gure suerte onez, nola egualdi gaistua, irriatzen asi dan.

—Eta nai niket gañera, daukazki-gun botak, gastigu geyago izan dezagun, babarrunez beteta eramatia.

—*¿Besterik ez?*

—Eta bere oñetara irištian ateratzia meza bat, ezkerrak emateko.

—Ori ta beste desio dekan guziya egiteko, badakit beti gai naizela.

Itz abek pasiaz eta esan bezela egualdiya ondubaz, preskaldi batzuek artubaz, irichi dira portura, itsasoratu ziran bezin sendo ta ederki, arranyak beste baterako putzu aundiartan utziyaz. Agindu bezela, Benitok etzeukan aztuba, añ fede onez egindako promesa; ala, andik egun guchira, chakolintegi batian arkitu du

—Ondo badeizkiyok aterako gaituk, ostegun goizian bostak aldera.

—Ederki ziok, Benito. ¿Eta biderako, zer eramango degu?

—¡Itsasuan genituben erropak berak!

—Ez, ez; jateko esan nai diat.

—¡Utzi akiyok janari.

—Bai, mutill; eramatenez ezzapadegu, utzi biarko.

—Badakik botak eraman biar ditugula babarrunez betiak.

—¡Baita, baita! ¡zer potajia egíñ biar degun!, diyo parrez chakolin tragua egíñaz.

Esan bezela atera dira Getaritik goizian bostetan, Martiñek satua muturreraño betia, lukainka baten erdiya, patrikeratik kanpora eraku-



LEZO-KO BATARIA

tziyaz, eta itsasoko bota altuak babarrunez betiak. Benitok etzuen barau auste-asmorik, aliketa beren meza promesa entzun artian.

Bazijoazen bidian presa aundi aundirik gabe, noizik beiñ Martiñek eztarriya garbitubaz ariñago ibiltzeko, irichi ziranian Oriyora, Martiñ kontentu, alai ta sasoi ederrekuoa, baña Benito oso moteldua ta esateko, pauso bat geyago ezin eman zezaken moduan; añ galdua.

Zubi buruan, arri aundi baten gañian eserita, eskua kopetera eramanaz, oso kejaturik diyo:

—¡Au pena, Martiñ, au pena!

—¿Zer dek Benito?, diyo satua españetatik atera ta lukainken muturrari ortzak erakutziyaz.

—¡Zer izango diat, ankak galdu zaizkiak!

—¿Ankak galdu? ¡Estek ori egiya!

—Ikusiko dek egiya ala gezurra dan.—Atera ditu itsasoko bota aundiak, lakarienbat babarrun, ari irazki bastoz egindako galtzerdiyak jeta misteriyo bat eztan bezela, gizarajuak zeukazkiyen, oñ guziyak galduak odoletan, ijitorik gogorrena kupituko zan moduan! —¿Ikus-ten dek au, Martiñ? ¡Dámu aundiya diat, baña ni ezin joan nitekek geyago aurrera.

—Sentitzen diat asko, ire ezin segitua, baña orrengatik ez ariyela estutu. ¡Ni joango nak Lezora ta nik osatuko diat biyen promesa!

—¿Ik, Martiñ?

—¡Bai, nik, Benito!

—¿Iri ez altzaik egiñ oñetako miñik, neri bezela?

—¿Neri? ¡Ka!

—¿Zer sartu dituk bada botetan?

—¿Nik?..... ¡Babarrun egosiyak!

VICTORIANO IRAOLA

